

# SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUA

2023 / 24



**AGENDA 2030** eta

**GARAPEN**

**IRAUNKORRERAKO**

**HELBURUAK**




2015. urtean, NBEk (Nazio Batuen Erakundeak), beste erakunde batzuekin batera, **JARDUTEKO AGENDA BERRI** bat ezarri zuen, honako helburuekin:

**1**  
**POBREZIA**  
**DESAGERRARAZI**

**2**  
**PLANETA**  
**BABESTEA**

**3**  
**GUZTION**  
**OPAROTASUNA**  
**ZIURTATU**



# GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

**1** POBREZIA  
DESAGERTZEA

**2** GOSERIK  
EZIZATEA

**3** OSASUNA ETA  
ONGIZATEA

**4** KALITATE ONEKO  
HEZKUNTZA

**5** GENERO-  
BERDINTASUNA

**6** EDATERKO URA  
ETA SANEAMENDUA

**7** ENERGIA  
ESKURAGARRIETA  
EZ-KUTSATZALEA

**8** LAN DUNA ETA  
HAZKUNDE  
EKONOMIKOA

**9** INDUSTRIA,  
BERRIKUNTZA ETA  
AZPIEGITURA

**10** DESBERDINTASUNAK  
MURRIZTEA

**11** HIRI ETA  
KOMUNITATE  
IRAUNKORRAK

**12** ENDIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUA

**13** KLIMA BARESTOKO  
EKINTZA

**14** URETAKO  
BIZITZA

**15** LEHORREKO  
BIZITZA

**16** BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIO  
SENDOAK

**17** ITUNAK,  
HELBURUAK  
LORTZEKO

  
**GARAPEN  
IRAUNKORRERAKO  
HELBURUAK**



# 15 LEHORREKO BIZITZA



Ikasturte honetako sentsibilizazio-kanpainaren gai nagusia **biodibertsitatea** da, eta, beraz, **Garapen Iraunkorrerako 15. Helburua** landuko dugu.

GIH honen helburua **basoak** modu iraunkorrean kudeatzea, **desertifikazioaren** aurka borrokatzea, **lurren degradazioa** gelditzea eta inbertitzea eta **biodibertsitatearen galera** gelditzea da.

## **DIBERTSITATE BIOLOGIKOA**

Funtsezkoa da gizakiaren biziraupenerako. Milioika pertsonari baliabideak ematen dizkie, eta gainera sendagai tradizional eta modernoetan iturri aberatsa da.



# BASOAK

- **1.600 milioi pertsona inguru basoen menpe bizi dira**, eta horietatik 70 milioi indigenak dira.
- **Gure planetaren azaleraren ia %31 hartzen dute** eta **animalia, landare eta intsektuen lurreko espezie guztien %80** baino gehiago.
- 2010 eta 2015 artean, munduak **3,3 milioi hektarea baso** galdu zituen.
- **Landa-eremuko emakume txirotuak** baliabide komunak mende daude, eta hauen agortzeak **bereziki eragiten die.**





## DESERTIFIKAZIOA

- **2.600 milioi pertsona nekazaritzaren mende daude**, baina behar duten luraren %52a kaltetua edo oso kaltetua izango da **lurzoruaren degradazioaren** ondorioz.
- Lehorteen eta desertifikazioaren ondorioz, **12 milioi hektarea galtzen dira urtero**, 23 hektarea minutuko.
- **Pobretutako pertsonen % 74ari zuzenean eragiten die luraren degradazioak** mundu mailan.



# BIODIBERTSITATEA

- Ia **7.000 animalia eta landare espezie, legez kanpoko merkataritza** gisa, salatu ziren 120 herrialdetan.
- Ezagutzen diren 8.300 animalia-arrazetatik, **%8a desagertuta dago**, eta **%22a galtzeko arriskuan**.
- Gutxi gorabehera, garapen bidean dauden herrialdeetako landa-eremuetan bizi direnen %80a, **oinarrizko osasun-arretarako landareetan oinarritutako sendagai tradizionalen mende daude**.
- **Mikroorganismoak eta ornogabeak funtsezkoak dira ekosistemen funtzionamendurako**, baina haien ekarpenak ez dira oso ezagunak oraindik.





# POZO COLORADO

(PARAGUAI)

El Chaco herriaren erdialdean, **San Isidro Labrador Eskola** dago. Bertan, inguruko nekazarien seme-alabek eskolara joateko aukera dute, bestela ezin izango lirateke joan.





## PARAGUAIKO EGOERA

Kalkuluen arabera, Paraguain **19 milioi baso hektarea** daude. Baina 2001etik baso-soiltzeak baso guztien **1/4 baino gehiago galtzea** eragin du, eta 2000tik **baso-soiltze tasa handiena izan duen** Latinoamerikako bigarren herrialdea izan da.

Paraguain, lau ekoreskualde handi elkartzen dira, eta horien artean dago Chaco (lehorra eta hezea), herrialdea **flora- eta fauna-aniztasun biologiko handiko leku** bihurtuz.

Maila soziodemografikoan, **biztanleria gaztea da** hein handi batean, **baina ez kualifikatua**. 17 eta 29 urte bitarteko gazteen %57,8a ez dago inolako hezkuntza-programatan, eta horrek zaildu egiten du haien garapena eta lan-munduan sartzea.







## CHACO PARAGUAIARRA

Hego Amerikako bigarren basorik handiena da, eta munduko **baso-soiltze tropikalaren tasarik altuenetako** bat du, batez ere haragiaren eta esnearen industriak eragindakoa.

Honen ondorioz, bertan bizi diren **indigena asko bota egiten** dituzte lur horiek ustiatzeko. Aldi berean, tximinoek, karraskariak, narrastiek (anakonda, jakare beltza, etab.) eta ugaztun handiek (jaguarra, Chacoko pecarana, etab.) osatutako **bizitza basatia mehatxupean dago**, eta batzuetan galtzeko arriskuan.

2001ean eremu babestu izendatu bazuten ere, **garapen iraunkorreko politika publikoak ez dira nahikoak biodibertsitatea kontserbatzeko.**





## **SAN ISIDRO LABRADOR ESKOLA**

Proiektutik hurbilen dagoen El Chaco eskualdeak **klima lehorra du**; gainera, **hiri handietatik isolatuta dago, eta zerbitzu publiko oso gutxi daude.**

Batez ere, **abeltzaintza- eta esne-jabetza** erraldoietan dago banatuta. Bertako nekazarien zati handi batek lan egiten du bertan, eta etxaldeetan bizi dira familiekin, baina **seme-alabek ez dute gertuko eskolarik.**

Haur horiei **hezkuntza emateko beharretik abiatuta, La Sallek kudeatzen duen San Isidro Labrador Hezkuntza Erakundea** sortu zen, Chaco erdigunean.



Duela zenbait urtetatik, **ingurumen-eskolarako proiektu bat ezartzen ari dira**, ingurumena zaintzeko eta bizikaltatea hobetzeko, bizigarritasunean eta balioetan oinarritutako hezkuntzan hartzen duen ekologia integral batetik abiatuta. Zentroan biodibertsitateari buruz egiten diren jarduerak honako hauek dira:

### **Animaliak zaintzea eta mantentzea**

- Baserrikoak: behiak, txerriak, ardiak eta oiloak, osasun-zaintza egokiarekin.
- Autoktonoak: hegaztiak (labezaina, birigarroa, arotz-txoria, loroak, etab.), sugedorriak, jakareak, azeriak, karpintxoak... eskolan babestuta daude eta ezin dira ehizatu.
- Erlezaintza: erleen erlauntzak zaintzea.





## **Landareak, baratzeak eta inguruko basoak zaintzea**

Lorategiak eta baratzea zaintzeko guneak sortzea.  
Basoko lurzorua garbitu eta mantentzea, zuhaitzak inautzea, alanbreak berritzea eta suebakiak eraikitzea.

## **Patioak eta inguruak basoberritzea**

Zuhaitzak landatzea eta haztegi bat ezartzea baso-landareak ekoizteko, familientzat.

## **Uraren zaintza**

Euri-ura bildu eta edangarri bihurtzeko sistema hobetzea.  
Uraren erabilera arrazionalari buruzko kontzientziazioa.

## **Hondakinak zaintzea**

Hondakinen kudeaketa egokiari eta ondorengo berrerabilpenari buruz kontzientziaztea.





# ONURADUNAK

6 eta 17 urte bitarteko 300 ikasle inguru.

300 pertsona horietaz gain, zonalde horietan lan egiten duten **familiak** ere onuradun izango dira. Familia ugariak izaten dira eta baliabide mugatuak dituzte.

Azkenik, bertan bizi diren **irakasleak** ere onuradun izango dira, bertan bizi baitira familiekin batera.



# AURREKONTUA

- Zentroaren urteko funtzionamenduari laguntzea, azpiegiturak kudeatzea eta mantentzea, haurrak elikatzea eta ingurumena zaintzea.

**GUZTIRA: 10.000€**

**TOKI XUME ASKOTAN  
JENDE XUME ASKOK  
GAUZA XUME ASKO EGINEZ,  
MUNDUA ALDA DEZAKETE.**



**iESKERRIK ASKO!**

